



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-11-07

VIURTEA 1.553.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jon Mujika eta Marimi Ugalde, hitzarmena sinatzen. I. GARCIA

Irurako Udalak eta HITZAK hitzarmena berritu dute beste lau urtez

IRURA Biztanleko hiru euro emango dizkio Udalak eskualdeko euskarazko egunkariari 4

Sarriopapel lantegiko langileen kideak kaleratzeko arriskuan daude

TOLOSALDEA-LEITZALDEA
Zornotzan eta Algecirasen
bi fabrika itxi nahi ditu
Torraspapel enpresak 7

Bihartik aurrera olio erabiliaren bilketa zerbitzua indartuko dute

TOLOSA Tolosaldeko
Mankomunitateak bi astez
behin egingo du bilketa; bihar
Trianguloan izango da 3



Chelo Romeo, Ibarrako alkatea, atzo goizean suteak eragindako kalteak balioztatzen. R. CALVO

Udaletxeko ate nagusian sutea eragin dute ezezagunek

IBARRA Likido sugarria jaurti zuten atzo gauean; Chelo Romeo alkateak kalte garrantzitsuak eragin dituela esan du eta ekintza salatu du 6



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan, OSKI arropa dendan eta HITZAKo Tolosa eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Kale Nagusia billabonatarrentzat

Pasa den astean ikusi nituen Billabonako komertzio askotan zintzilikatu dituzten aparkalekuaren aldeko askaera kartelak.

Nik ere autoa erabiltzen dudanez, interesa piztu zitzaidan... Jakin-minak, komertzio batera sartu eta galdetzeraz eraman ninduen. Segidan, bertako langileak eskaera orria sinatzera gonbidatu ninduen. Orduan, tentuz irakurtzen hasi eta berehala erabaki nuen ez sinatzea. Zergatik:

- Autoen masifikazio arazoa herriko kale nagusira ekarriko duela.

- Kale nagusia oinezkoentzat (peatonala) izateak dakarren lasatasun, kutsadura eza, giroa eta abar (bereziki komertzioentzat) galduko direlako.

- Autoen joan-etorriak kale nagusiko bizilagun eta erabiltzaileen segurtasuna eta bizi-maila arriskuan jarriko dituelako.

- Herriko plazaren nortasuna eta bertan egiten diren ekintza ezberdinak mugatuko dituelako.

- Udalak bere jardunean merkatarien interesei (goizeko ordutegiarengatik) baino, herritarren bizi-mailaren alde egin behar duela.

- Herritarrentzat samurragoak diren alternatibak (baterian apar-

katzea,...) planteatu behar lirakekelako lehenik.

Bukatzeko, galdera bat luzatu nahi nuke. Agian ezal genuke hobe herritarrek erdigunean lasai ibiltzeko oinezkoentzat dugun kalea errespetatu, eta gure autoak erdigunetik ez oso urrun dauden aparkaleku eraberrituetan (Txermin, Sacem,...) uztea?

Aitor Gonzalez (Villabona).

Kultur Asteak

Zorionak kultur asteak eta ekitaldiak prestatzen eta prestatu dutenei! benetan, aurten gauza polit asko ikusten ari naiz herri diferentetan, eta denetan ez da janaria eskaintzen! zorionak benetan!

Maidier.

Jesusen Bihotzakoko Zabalegiko Natur Eskolan

Iragan urriaren 29an, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako Haur Hezkuntzako 3. mailako ikasleak Zabalegiko Natur Eskolara joan ginen. Egun osoko irteera izan zen eta oso ondo pasa genuen.

Zabalegin, baratzeri eta animaliei loturiko jarduerak egin genituen baina eguraldi txarra egin zuenez hainbat jarduera gela barruan egin behar izan genituen.

Jesusen Bihotza (Villabona).

I Irudietan**Onddoak Ibaratik**

IBARRA • Irakurleak aurten bildutako onddoen argazkiak bidaltzen ari dira 'Hitza.info'-n dagoen sailera. Horren adibide, Ibarako Luis Ramon Iglesias da, berak topatutako onddoen argazkiak bidali baititu. Abenduaren 3ra arte edonork har dezake parte eta, gainera, argazkiak bidaltzen dituzten guztien artean (webgunea@hitza.info) asteburu bateko egonaldia zozkatuko da nekazal etxe batean.

K Kirol jarduera**Bihar****Futbola**

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean Gazteen nazional maila: Tolosa CF-Hernani.

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, infantil txikiak: Tolosa CF-Real Sociedad.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:30ean, gazteen Ohorezko Maila: Tolosa CF-Burumendi.

■ Usabalgo futbol zelaian, 14:00etan, gazteen Lehen Maila: Amartz-Hernani.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:45ean, lurraldekoen Bigarren Maila: Amartz-Usubil.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:45ean, lurraldekoen Lehen Maila: Tolosa CF-Lagun Onak.

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, seniorak, 12:00etan: Tolosa-Leizaren.

■ Usabalgo beheko kantuan, 12:00etan, infantilak: Tolosa-Udarrregi.

Mahai tenisa

■ Usabalgo beheko kantuan, 16:00etan.

Igeriketza

■ Usabalgo igerilekuan, 14:30ean, Klasika, Lehen liga (parte-hartze eta errendimendu probak).

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:30etik aurrera, infantil mutila: TAKE A- Ordizia; ondoren, neska, TAKE A-BKL.

■ Usabalgo goiko kantuan, 12:00etatik aurrera, kadeteak, neska: TAKE-Bera Bera Gros. Ondoren, mutilak: TAKE B- Kragt At Jaizkibel.

■ Usabalgo goiko kantuan, 16:00etan, junior mutilak: TAKE-Cafes Aitona A.

■ Usabalgo goiko kantuan, 18:00etan, Nazional Mailan, Bide Bide Ibiza-Ardoi.

Azaroak 10, astelehena**Pilota**

■ Bigarren Mailako Lau t'erdiko Txapelketako final-laurdenak, 16:30etik aurrera Beotibar pilotalekuan.

**H Hilberria****MANUEL M^a GARMENDIA LASA**

Jauna

Herengun hil zen, 53 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ostirala, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Beizamako San Pedro parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara.

Aldez aurretik, mila esker.

Zure ilobak



BEIZAMA
2008ko azaroaren 7a

Helbidea: Otei Baseria.

H Hilberria**PILAR LEGARDA-EREÑO PAGOAGA**

Andrea

-Goian bego-

Gu beti zurekin
zu betirako gurekin
maite zaitzugu

Zure bilobak: Mikel eta Ane



AZPEITIA
2008ko azaroaren 7a

H Hilberria**PILAR LEGARDA-EREÑO PAGOAGA**

Atzo hil zen, 68 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren senarra: Jabier Aranbarri; seme-alabak: Xabier eta Ainhoa Karrera; bilobak: Mikel eta Ane; anai-arrebak: Luis eta Pili, Ignacio eta Arantza, ezkon anai-arrebak: Visitation eta Manuel (+), Juan M^a eta Maribel, Conchita (+) eta Ignacio, Ramona eta Trino (+), Ignacio (+) eta Maite, Satur eta Agurtzane, Ricardo eta Elena; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak: Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, ostirala, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Azpetiko Soroasuko Sebastian Deurenaren parroki, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



AZPEITIA
2008ko azaroaren 7a

Helbidea: Garmendi-10-2-C

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)

Klezmer doinuak ekarriko ditu bihar Leidorrera Kroke talde poloniarrak

Tolosa » Mundua Tolosan zikloaren baitan izango da biharko kontzertua; 'Seventh trip' lana aurkeztuko dute bertan.

ERREDAKZIOA

Mundua Tolosan zikloaren baitan, bihar Kroke talde poloniarra izango da Leidorren kontzertua eskaintzen. Emanaldia 20:30ean hasiko da. Sarrerak, antzokiko leihatilan, Servikutxan, Telekuxan edo www.kutxa.net eros daitezke 25 euroren truke.

Kroke esaten zaio yiddishez (Europa erdialdeko juduen hizkuntza) Poloniako Krakovia hiriri. Han du jatorria 1992an hiru lagun artean sortutako talde honek, hiru taldekideak Krakoviako Musika Akademian graduatuak baitira. Kroke talde instrumentalki klezmer musikaren tradizioa eta aldi berean, modernitatea erakusten ditu. Hala, biharko emanaldian beraien azken lana aurkeztuko dute, *Seventh trip* hain zuzen ere. Emanaldi honekin amaituko dute beraien azken bira, eta Poloniara itzuliko dira.

Tomasz Kukurba (biolina), Jerzy Bawol (akordeoia), Tomasz Lato (kontrabaxua) eta Tomasz Grochot (perkusioa) dira Kroke. Denbora gutxiaren buruan, oso ezagun egin dira musikari hauek Europako jaialdi garrantzitsuenetan jo izanari esker. Aipatzekoak dira, emanaldi horien artean, Las Palmaseko Womad jaialdiak, Reading deitua edo musika juduaren inguruko topagune ugariak. Esandako emanaldi horietan, ospe handi



Poloniako Krakovia herritik datoz Kroke musika taldekoak, beraien azken lana aurkezteko asmoz. HITZA

diko artistekin partekatu dute agertokia, halanola Van Morrison, Ravi Shankar, Klezmates edo Natasha Atlas. Taldearen jarraitzaileen artean daude, bestalde, Ben Kingsley eta Kate Capshaw aktoreak edota Steven Spielberg zinema zuzendaria.

Musika tradizionalako erreperitorioan oinarriturik, Krokek, bere moldaketa propioak ez ezik, inprobisazioak garatzen ditu, musika klasikoan eta jazzean jasotako heziketa eta esperientzia baliatuz. Hala, konposizio berriak eta bakarrak sortzen ditu, musika juduaren unibertsoan guztiz ezezagunak ziren soinua eratu.

Taldekide bakoitza benetako birtuosoa da, nor bere instrumentuarekin: Tomasz Kukurbak bere biolak eta biolinak harrapa dezaketeko espektro guztia erabiltzen du; Jerzy Bawol gai da, eskusoiarekin, gogoeta barnekoietatik su artifiziala alaietara igarotzeko; Tomasz Latok, azkenik, tonalitate sotilena lortzen ditu bere kontrabaxuarekin.

Klezmer doinuak nagusi

Krokek egiten duen musika, batez ere, klezmer soinuak abiatzen dela esan daiteke. Hitz hori hebreerazko bi hitzez osatua dago: kley (musika tresna) eta zemer (abestu, mu-

sika jo), baina, batez ere, Europa erdi-ekialdeko juduek, yiddishez mintzatzen direnek, interpretatzen duten tradiziozko musika instrumentalarik deitzen zaio klezmer.

Denbora askoan zehar, klezmer musika beste soinu eta erritmo batzuekin osatuz joan da, harik eta aberastasun handiko soinu ondare bihurtu den arte. Klezmerraren birtutez azaltzen dira kanpoaldere herri juduaren pozak eta tristurak, eta horixe egiten du, hain zuzen, Kroke musika talde poloniarrek ere bere doinuekin, tradizioa errespetatuz eta urrats bat aurrerago eramanez.

Euskal Herrian Euskarazek deituta, bizikleta martxa egingo da bihar goizean

Tolosa » 'Ezabaketa astea' ari da gauzatzen egun hauetan eta antolatuta ekimenen artean dago biharkoa ere.

ERREDAKZIOA

Euskal Herrian Euskarazek deituta, *Ezabaketa astea* ospatzen ari dira egun hauetan, igandea bitartean. Ekimen honekin, «hizkuntza eskubideen zapalkuntza agerian uztea» dute xede, «euskararen ofizialtasunaren aldarriari lehentasuna emanaz».

EHEren hitzetan, «Tolosaldean ere, zapalketa egoerak ematen dira»; hori dela eta, deialdia luzatzen diete Tolosaldeko euskaltzale guztiei, bihar larunbata, 11:00etan Tolosako Triangulo plazatik abiatuko den bizikleta martxa parte hartzera.

Erakunde euskaltzalearen estetan, «euskarak, aurrera egingo badu, sakoneko eta erroko aldaketa behar du. Halaber, Euskal Herri osoan aitorutako ofizialtasuna da bere etorkizunerako bermea». «Horrek egingo markoak gainditzera garamatza ezinbestean, Euskal Herriaren osotasuna aintzat hartuko duen elementu gisa. Jaki-na baita euskararik gabe ez dela Euskal Herri ikizango, ezta alderantziz, euskararik Euskal Herri-rik gabe», gaineratzen dute.

Egindako salaketen artean aipatzen dute ere, gaur egun, ezinezkoa zaiela euskaldune euskara hutsez bizitzea. Arloz arlo, publiko zein pribatu, hizkuntza eskubideen urraketak ematen baitira lurralde honetan.

Bihartik, bi astez behin bilduko dute olio erabilia

Ingurumena » Zerbitzua indartzea erabaki du mankomunitateak; bihar Trianguloan izango da puntu berde mugikorra.

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko Mankomunitateak indartu egin du erabilitako landare olioaren eta etxeko hondakin arriskutsuen gaikako bilketa zerbitzua. Hau, puntu berde mugikorraren bidez egiten da. Horretarako, hil honetatik aurrera, Tolosako bilketa hileko bigarren eta azken larunbatean egingo dira. Hau da, etzi, goizeko 09:00etatik 13:00etara, Trianguloan.

Zerbitzua gauzatzeko, behar bezala hornitutako furgoneta bat



Puntu berde mugikorra eskualdean zehar. HITZA

eskualdeko 28 herrietatik igaroko da. Herri bakoitzean finkatutako bilketa egutegia eta ordutegia www.tolosaldea.org webgunean

konsulta daiteke. Aldez aurretik finkatutako egutegiaren eta ordutegiaren arabera. Honek, besteak beste, erabilitako landare olioak,

pinturak, disolbatzaileak, fluorezenteak, pilak, inprimagailuko kartutxoak eta sakeleko telefonoak.

Erabilitako olioak ontzi itxi batean utzi beharko da. Eta hau plastikozko izatea hobesten da. Hondakin arriskutsuak, berriz, banan-bana eraman behar dira, nahastu gabe.

Zerbitzuaren onurak

Erabilitako landare olio horrekin biodiesela egiten da. Erregai honek gasoleoak baino gutxiago kutsatzen du, eta gainera, biodegradagarria da. Hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaile bati bidaltzen zaizkio behar bezala deskontaminatzeko eta birzikla daitezkeen zatiak berreskuratzen.

Edukiontzia laranja eskualdean

Sukaldeko olioaren birziklapena errazteko asmoz, datozen egunetan, Abaltzisketa, Altzo, Alkiza, Larrual eta Bedaion edukiontzia berri bat jarriko dute. Laranja koloreko edukiontzia horretan, erabilitako landare olioak soilik utzi ahal izango da. Olio ondo itxita egingo diren plastikozko botiletan edo ontzitan sartzea komeni da. Edukiontzia berri horren emaitzak onak baldin badira, Tolosaldeko Mankomunitatearen gainerako udalerrietan jarriko dituzte.

Tolosaldeko Mankomunitateak luzatutako datuen arabera, urte hasieratik hona, 9.411 pertsona hurbildu dira puntu berde mugikorrera. 17.900 litro sukaldeko olio eta 2.500 kilo hondakin arriskutsu utzi dituzte.

Udalak eta HITZAK hitzarmena berri dute beste lau urtetarako

Irura » Akordioaren arabera, biztanleko 3 euro emango dizkio urtero Udalak eskualdeko euskarazko egunkariari.

IMANOL GARCIA

Irurako Udalak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK hitzarmena berri dute 2011 urtera arte, hau barne. Lau urte hauetan, bezaz, biztanleko hiru euro emango dizkio Udalak eskualdeko euskarazko egunkariari. Marimi Ugalde alkateak eta Jon Mujika HITZAKO kudeatzaileak sinatu dute akordioa.

Udalgek azaldu duenez, «hasieratik ikusi genuen HITZA oso gertukoia zela eta jendeari inguruko albiesteak euskaraz irakurtzeko aukera ematen ziola». Irurako alka-



Jon Mujika eta Marimi Ugalde, akordioa sinatu ostean. I. GARCIA

teak gaineratu duenez, «albiesteak gertukoak dira eta horretaz gain euskara ulerterrezean idatzen da eta irakurleek hala adierazten dute ere».

Bere aldetik, Jon Mujikak Irurako Udalak ematen duen laguntza eskertu du eta gogoratu du proiektua bultzatzen «hasieratik dagoela». HITZAK eskatutako laguntza

emango du Udalak eta hori proiektuarentzat «oso garrantzitsua» dela azaldu du egunkariko kudeatzaileak.

Bestalde, Lariturri auzoan egunkaria ez dela banatzen eta egoera hori konpontzeko ahalegina egiteko eskatu dio Udalak HITZARI. Mujikak azaldu duenez, auzo horretan «banatzeko esfortzuak merezi du eta aukera aztertuko da».

Hitzarmenean zehazten denez, HITZA «euskararen erabilera areagotzeko lanean ari da eta ariko da, euskararen normalizazioa lortzeko bidean oso tresna garrantzitsua da eta izango da», eta horren guztiaren onuradun, besteak beste, Irurako herritarrak izango dira. Zentzu horretan, akordioan zehazten denez, Irurako Udalak egunkariarekin «elkarlanean aitzeko borondatea adierazten du».

Laburrak

Alkartasunakoen bazkaria Milagrosa egunerako

ANOETA » Alkartasuna Biltokiak urteroko bazkaria egingo du Milagrosa egunean, hilaren 27an. Zuloaga Txiki jatetxean izango da bazkaria, 14:00etan. Bazkariaren prezioa 25 euroko da, baina bazkideek 22 euro ordaindu beharko ditu, beste hiru euroak biltokiak ordainduko baititu. Bazkaria eta gero musika izango da. 12:30ean meza egongo da parrokiari. 13:15ean autobusaz jango da geltokian jate-xerxa joateko. Bueltarako 18:50ean eta 19:50ean izango dira autobusak. Dagoeneko izena eman daiteke. Biltokitik azaldu dutenez, izena ematen duten lehenengo 80 lagunek jatetxearen azpiko jangela jango dute eta hortik aurrera izena ematen dutenak goiko jangela izango dira.

Batzar informatiboa, gaur, San Bartolome plazan

IBARRA » Herritarrentzat batzar informatiboa egingo dute, gaur, 19:30ean, San Bartolome plazan. Herriaren inguruko azkeneko informazioen berri emango dute. Deialdia luzatzen dute bertan partehartzeko.

Aurrera-Saiazekoen partidak, bihar Beotibarren

PILOTA » Bihar Aurrera-Saiaz pilota eskolako pilotariak Tolosako Beotibar frontoian hiru partidak izango dituzte. 10:30ean hasiko dira eta lehenik Apezetxea jubenila ariko da Lagunako pilotariaren aurka. Ondoren, senior mailako Baez Ilunpeko nagusi baten aurka lehiatuko da. Bukatzeko, senior mailan Aizpirtate-Mujika eta Aretxabale-tako bikotea ariko dira.

Haurrentzako ginkana, etzi «Udazkenean Kultura»-n

ALEGIA » Etzi, Udazkenean Kulturaren baitan ginkana antolatuko da Langaurre Txirriindulari Elkarteak. Haurrentzat aproposa den ekitaldia Larraizko plazan izango da. 11:00etan, Larraiztik hasita, bidegorritik bizikletan joango dira. Ezinbestekoa da kaskoa eramatea. Eguraldi txarra egingez gero, frontoian egingo dute ginkana.

Behar-Zanakoen partida ugari asteburu honetan

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Txapelketa aurrera doan heinean, gero eta partida gehiago jokatzen ari dira Villabonako Behar-Zana pilota eskolan eskuz jokatzen dihardutenek. Gero eta partida gehiago jokatzeaz gain, «gero eta maila hobetueko erakusten ari dira», azaltzen dute Behar-Zanatik.

Gipuzkoako Kutxa sariari dago-kionez, gaur 21:15ean, senior mailan Iñaki Lizaso eta Antton Pebe-tek Añorgako bikotearen aurka jokatuko dute eta ondoren kadete mailako Mikel Otañok eta Iñaki Otaegik Zumarragako Belokiren aurka izango dute partidak.

Bihar, 11:00etan, kadete mailako Jon Ezeizak eta Unai Otaegik Hondarribiko bikotearen aurka eta ondoren Ilazki Ordozgoiti eta Ander Inza jubenilek arrasatear- rren aurka jokatuko dute. Beste pilotariak kanpoan jokatuko dute:

Arkaitz Arretxek Elgetan, Arkaitz Iraetak eta Ander Aranburuk Zestoan eta Kepa Nazabal eta Jon Ander Artazak Bidegoianen.

Ondoren, 15:00etan, benjamin eta alebinen mailan eskolarteko beraien txapelketako lehen jardunaldia jokatuko dira. Aste honetan hiru partidak jokatuko dira: Behar-Zanan entrenatu baina Fleming, Jesusen Bihotzan eta Otañon ikasten duten pilotarien partidak izango dira. Beste taldeek kanpoan izango dituzte partidak.

Jarraian, 16:00etan, infantilen Gipuzkoako banakako txapelketako partidak jokatuko dira. Txapelketa honetan Amasan Jon Erasun, Eneko Maiz, Aitor Irisarri eta Eneko Alkorta ariko dira. Bestalde, Eneko Zubiaurrek Lazkaon; Axier Galegok Urretxun; Peru Labakak Seguran eta Iñigo Irisarri, Aitor Ormazabal eta Ander Nazabalek Adunan jokatuko dute.

Lakuntzakoen partida garrantzitsua, bihar

ERREDAKZIOA

Villabonako Lakuntza areto futbol-eko taldeak partida zaila eta garrantzitsua du bihar Olaederra kiroldegian, 16:00etan. Donostiako Euskal Sofa-Inter UPV taldearen aurka ariko dira, orain gutxi lehenengo postuan zegoen talde sendoa. «Sailkapenaren aurreko postuetan egon gaitzkeela zaletuei erakusteko aukera ona da», azaldu die taldek. Horregatik, zaletuei deialdia egiten die animatzera joateko.

Izan ere, aurreko asteburuko partidak gustu gazia utzi zieten billabonatarrei. Getxoko Artamoro taldearen aurka jokatu zuten, kanpoan, eta etxera ekarri nahi zituzten hiru puntuak, baina azken momentuan ez zen posible izan. Artamororen kantzak asko gelditzen zuten baloia eta jokalarien belau- nek asko sufritu zuten ere. Billabonatarrek ez ziren gustura aritu eta

ezin izan zuten beraien jokoa erakutsi. Zoritxarreko jokaldi batean Artamorokoez lehenengo gola sartu zuten.

Lakuntzakoak esnatu ziren eta Aginaga eta Etxanizen arteko jokaldi batean, Aginagak berdinketa lortu zuen. Markagailu horrekin iritsi ziren atsedendira. Bigarren zatian, partidaren bila atera ziren, baina billabonatarrek ez zuten beste partidetak jokorik erakusten. Halere, kontraeraso batean Etxanizek bigarren gola sartu zuen. Partida amaitzera zihoala, Artamorokoez berdinketa lortu zuten. Emaizta txarra zen, baina beste taldeek lortutakoak kontuan izanda, Lakuntzak bigarren postuan jarraitzen du, lehenengo doan Lagun Onakekin berdinduta.

Bestalde, Urritzat Jatetxea filialak gaur izango du partidak, 20:45ean, Zarautzarrak taldearen aurka.

txokoa
h

2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu!



aspepelota.com

Azaroak 10, astelehena
16:30ean • Tolosako
Beotibar pilotalekuan

**Galarza V - Merino I
Berasaluze Ix - Beroiz**

**GONZALEZ - LASA III
OLAZABAL - PASCUAL**

**Argote
Cabrerizo**

2 sarrera pare

zozketan

irabazleak:

- Josune Zubeldia (Tolosa)
- Eurne Zabala (Tolosa)

Azaroak 8, larunbata
20:30ean
Tolosako Leidorren



Kroke
taldearen
kontzertua



TURISMOAREN KALITATEA

“Orain lanerako dugun ikuspuntua oso dezberdina da”

Euskadin jada 242 dira Turismo Kalitatearen “Q”a duten establezimenduak. Hauen artean eredugarri dugu Roberto Ruiz-en Frontón Jatetxea, Tolosako babarrunei esker lortu duen izenagatik. Robertoren iritziz, ziurtagiriak eguneratzea, barne-egituraketa hobetzea eta gauzak beste ikuspuntu batetik bideratzea ahalbidetu die. Frontón-en badakite bezeroarekin aurrez aurreko harremana zaintzeaz gain, beraien enpresa txikia kudeatu behar dutela. Bermea eta zerbitzu aberatsagoa eskaintzen dute, guztia bezeroaren onerako.

Zeintzuk izan dira turismoaren alorrekin zerikusia duten sistema eta programa zehatzak aukeratzeko arrazoirik erabakigarrienak?

Hasiera batean eguneratzea da garrantzitsuena, batez ere zerbitzua kudeatzeko, gurea bezalako enpresa txikietan ez baitago ohiturarik. Erroka berria zen guretzat betidanik egin ditugun eta datatu gabe zeuden egin-kizunei izena jarri eta eguneratzea.

Ze onura izan du zure erakundeak Turismo Kalitatearen “Q”a es-

kuratu zuenetik?

Nik uste dut, batez ere hain garrantzitsua den antolakuntzari dagokionez, iragana eta oraina garbi bereiz ditzakegula: orain lanerako dugun ikuspuntua oso dezberdina da.

Sistema aplikatu zenuenetik ze onura izan dituzue barne-antolakuntzan? Eta bezeroaren gogobetzeari dagokionez, zertan hobetu da?

Antolakuntzari dagokionez, askoz hobeto egituratzen duzu dena, lan egiteko era eta jatetxea

orokorrean kudeatzekoa. Egiturari dagozkion aldaketak oinarritzkoak dira; funtsean, indarrean da goen legedira moldatzea. Adibidez, larrialdi irteerari dagozkien legeak ia urtetik urtera aldatu egin dira, eta guk ez genuen horren berririk, ez ginen eguneraturik.

Turismo Kalitatearen “Q”aren helburua, finen, kalitatezko zerbitzu bati esker bezeroa ahalik eta ongien asebetetzea da, eta prozesua aurrera joan ahala nabaritzen hasten da hori. Lehenago kontutan hartzen ez zenituen gauzak askoz ere zorrotzago neurtzen dira orain bezeroaren arretari dagokionez, eta harentzat funtsezkoak dira eroso senti dadin.

Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratu izanak

zure erakunde maila lehiakorrago batean kokatu duela uste duzu?


Esan dezagun Turismo Kalitatearen “Q” ziurtagiria lortzeko prozesu horrek barne-lehia batean sartzen zaituela, eta beraz, lehiakorrago bilakatzen.

Zeintzuk uste duzu izan direla “Q”aren prozesua abiatu zenutenetik landu dituzuen atalik aipagarrienak?

Segur aski antolakuntzari dagokiona.

Zer esango zenioke turismo profesionalaren alorreko edozeini, sistema honekin lan egitera anima dadin?

Gomendatuko al zenioke edozein erakunderi “Q”arena bezalako sistema bat?
Noski baietz. Batez ere



ROBERTO RUIZ
Tolosako Frontón Jatetxea
Jabea

merezi duelako sistema barrenetik sendotzeak, gure betiko eginkizunetik at dagoen dinamika baten sartzeak, eta bezeroarekin aurrez aurre aritzen den edozein enpresa txiki bezala kudeatzeko premiaz ohartzeak.

Eusko Jaularitzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrago izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

JARDUNBIDE EGOKIAK:

Kalitatearekiko konpromesua eta sensibilizazioa, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionalerik zuzendutakoa.

TURISMO KALITATEAREN Q-A:

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztatpena. Bezeroen iguripenen betekizunaren bermea.

EFQM BIKAITASUN EREDUA:

Erakundeek kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzten dien programa.

JARRI TURISMO-KALITATEAREN Q-A ZURE ESTABLEZIMENDUAN !

94 607 75 86
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

“Turismo Kalitatearen “Q” ziurtagiria lortzeko prozesu horrek barne-lehia batean sartzen zaituela, eta beraz, lehiakorrago bilakatzen.”

Udaletxeko ate nagusian eragindako suteak kalte materialak sortu ditu

Ibarra » Herrizaingo Sailak argitutakoaren arabera, likido sugarrria jaurti zuten ate nagusira eta ondoren su eman zioten.

ERREDAKZIOA

Atzo gauean, 00:20 inguruan Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak esandakoaren arabera, ezezagunek likido sugarrria jaurti zuten Ibarra udaletxeko ate nagusiaran azpitik eta ondoren su eman zioten. Suak ke ugari sortu zuen, izan ere likido sugarrria atearan azpitik sartzean bertan zegoen alfombra zein azpiko materialak ere su hartu zuten ke ugari sortuaz.

Kea eta hautsa

Udaletxeko ate nagusian, hortaz, kalte ugari eragin ditu suak eta udaletxe barruan, gainera, kea eta batez ere, hautsa beltza ziren nagusi goizeko lehen orduetan. Suhiltzaileek ere hartu behar izan zuten parte eta haiek eragotzi zuten sutearen zabaltzea, Herrizaingo Sailak ohartarazi zuenez.

Horiek horrela, Ibarra alkateak, Chelo Romeok, kalte materia-

lak —ez da zauriturik izan— garrantzitsuak direla argitu zuen bertan ziren komunikabideei, atea zur noblekoa baita. Era berean, alkateak pasa den asteburu honetan udaletxean izandako margoketak eta kristal hausturak ekarri zituen gogora. Gogoratu behar da Ibarra udaletxean, azken bost hilabeteetan, hiru eraso izan direla jada. Lehena abuztua baino lehen izan zen, pasa den asteburu honetan bigarrena eta atzo gauekoa azkena.

Atea, bigarrenegoz

Chelo Romeok esandakoaren arabera, «udaletxe guztia hankaz gora dago kearengatik eta hautsarengatik».

Era berean, udan izandako eraso gogoratu zuen, orduan ere ate nagusia izan baitzen kaltetua, nahiz eta oraingoan kalteak handiagoak diren. Eraso hori eta gero ate berria enkargatu behar izan zutelare esan zuen. Udan izandako eraso eta gero «oraindik ez dugu izan udaletxeko eraikina guztiz erabirretzeko denborarik izan», izan ere «neurria egindako beste ate berri bat enkargatu behar izan genuen orain hilabete batzuk, hau ere zur noblekoa», gaineratu zuen.

Romeok Udal talde osoa, EAJ, EA, PSE eta EB alderdi politikoek osatzen dutena, «larrituta» daudela azpimarratu zuen. «Ez gara bate-tik atera eta beste batean sartu gara», salatu zuen.

Izan ere, Romeo alkateak aipaturiko azken hiru erasoez gain azken urtean Udal taldea osatzen duten alderdi politiko desberdinen kontra izan diren margoketak ere gogoratu zituen.

Erasotzaileen inguruan, aldis, Romeok Udal taldeko kideak «traidoretzat, kartzelerotzat eta fatxatatzat gaituztenak» direla argitu zuen.

Erasoa ezagutu bezain laister alkatea Udaleko beste alderdietako kideekin hitz egin zuen telefonoz gertatutakoaren berri emateko, eta hauen ustez eraso egin dutenak «kartzelerotzat, fatxa eta traidore deitzen diguten berdinak» direla gaineratu zuen.



Atean kalteak eragin ditu suteak; lehen irudian Udaletxe kanpoaldea ikusi daiteke eta bigarrenegoz barrualdea. a.c.

Saharako Tichla eta Ekuadorreko Ibarra herriak, pixka bat gertuago

Ibarra » Kultur Trukea Hamabostaldia antolatatu du Udalak; datorren asteartean hasiko da eta hilaren 21ean amaituko da.

ERREDAKZIOA

Ibarra herriaren sendoak ditu aspalditik Ekuadorreko Ibarra eta Saharako Tichla herriekin eurekin hitzartutako senidetzeak direla medio. Hori dela eta, eta baita herrialde horiekiko ezagutza zein guztien arteko kulturartekotasuna sustatzeko, urteroko moduan,

Kultur Trukea Hamabostaldia antolatatu du Ibarra Udalak Ibarrik Misio Taldearen, Tolosaldea Sahararen eta Comunidad de Ecuatorianos Residentes en Ibarra elkartearen laguntzarekin. Hamabostaldia datorren asteartean, hilak 11, hasiko da eta hilaren 23ra arte iraungo du. Egun horietan zehar hitzaldiak, filmak eta futbol partidak izango dira, besteak beste. Lehen ekintza Benito Izagirre kultur etxean, asteartean, inauguratuko duten Ekuador, Sahara eta Ibarra artelaren erakusketa izango da. Hamabostaldia irauten duen bitartean ikusi ahal izango da

10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara. Erakusketan, hortaz, herrialde desberdinetako artistek egin lanak ikusi ahal izango dira. Zehazki, Ekuadorreko Luis Eduardo Aguirre Torresen, Susana del Carmen Torres Aspiatzuren eta Gonzalo Perezen lanak, Ibarra Myriam Orcoyenen, Tomas Ruiz Ballesterosen eta Jose Molinero Osarenak eta Saharako

Mohamed Embarec Yamah eta Mohamed Baecharenak ikusi ahal izango dira. Tolosaldea Sahararekin elkarrearen izenaren ere hainbat lan ikusi ahal izango da.

Dokumental bat eta bi film

Ikus-entzunezko lanei dagokionez, *Ecuador: Latitud 0* izeneko dokumentala eta bi film eskainiko dituzte Ibarra.

¿Que tan lejos! Tania Hermida zuzendariaren lanean Esperanza emakume espainiarra da protagonista. Ekuadorreko iritsi berria da, herrialdea ezagutu nahi du, baina bidean, maite duen mutilaren zain dagoela, Teresa gerturatzeko zaio eta elkar ezagutzeko gain herrialdea ere ezagutzen dute.

Sahara no se vende, berriz, Joaquin Calderon eta Luis Arellanoren filma da. Saharar herrialdean zehar, historian, eginiko bidaia bisuala da eta Manu Chaoren, Marian Hassanen, Chambaoren, Tonino Carotone eta Amparanoaren musika entzun ahal da bertan, besteren artean.

» EGITARAUA

Azaroak 12, asteazkena

■ 19:30. *Ecuador: Latitud 0* dokumentalaren emanaldia Benito Izagirre kultur etxean.

Azaroak 13, osteguna

■ 17:30. Saharako ipuin kontaketa saioa eta *henna* tatuaien tailerra eta tea datatzea Kultur Etxean.

Azaroak 14, ostirala

■ 19:15. Tania Hermida zuzendariaren *¿Que tan lejos!* izeneko filmaren proiektzioa Benito Izagirre kultur etxean.

Azaroak 16, igandea

■ 12:00etatik 14:00etara eta

16:00etatik 18:30era: Aretu-futboleko txapelketa: Ibarra, Ekuador, Sahara eta Ukraina Belabieta kiroldegian.

Azaroak 18, asteartea

■ 19:30. Saharari buruzko hitzaldia Kultur Etxean.

Azaroak 19, asteazkena

■ 19:30. *Senidetze Misiolariaren Lorpena: Ibarra Ekuadorreko Santa Rosa eta Babarekin* Ibarrik Misio Taldearen proiektu aurkezpena Kultur Etxean.

Azaroak 20, osteguna

■ 19:00. *Sahara no se vende* izene-

ko filmaren emanaldia zuzendariaren, Joaquin Calderonen eta Luis Arellanoren, aurkezpenaren laguntzarekin Kultur Etxean.

Azaroak 21, ostirala

■ 17:30. *Vuela Bonita* Korporation izeneko taldearen *Babel/Mundua* antzerki emanaldia Benito Izagirre kultur etxean.

Azaroak 23, igandea

■ 12:00. Esperanza Latina Elkarte-kideek Ekuadorreko dantza erakustaldia eskainiko dute herriko kaleetan zehar. Ondoren, Ekuadorreko eta Saharako jakien datatzea San Bartolome plazan.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza saltzen Tolosako Voith Gorostidi eremu-ko lehenengo fasean. 2 logela, 2 komun, terraza zabala, sukalde, sala, garajea eta trasteroa. 300.000 euro (BEZ barne). Negoziatzeko prest. Interesatuak deitu: 657 70 05 68.

@ Zeuen iritzien berri izan nahi dugu. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAren web gunean zeuen iritzirik jaso nahi ditugu.

Aste honetan, esaterako, hauxe da HITZAren eztabaidarako gaia: «Tolosako Corazonistas eliza botatzea onartu du orain gutxi Udalak, bertan etxebizitzak egiteko. Zer iruditzen zaizu? Etxebizitzak egiteko erabiliko al zenuke? Botatzea beharrezkoa da? Etxebizitzak behar dira?».

www.tolosaldekohitza.info



Torrosas SA taldearen barnean aurkitzen da Leitzako Sarriopapel fabrika. ASIER IMAZ

Leitzako eta Berrobiko Sarriopapel fabrikako langileen kideak kinkan

Ekonomia » Torraspapelek Zornotzan eta Algecirasen bi fabrika itxi nahi ditu; 400 langile kalean geldituko dira erabaki honekin.

ASIER IMAZ

Torraspapel SA enpresa multinazionalak Espainian eta Euskal Herrian bi lantegi itxiko dituela jakinarazi zuen atzo. Berrobin (Uranaga) eta Leitzan (Sarriopapel) dituen fabriketan erabaki honek eraginik ez duela izango ere azpimarratu nahi izan zuten multinazionalako iturriek.

Torraspapelek itxi nahi dituen lantegiak Algecirasen (Espainia) eta Zornotzan (Bizkaia) aurkitzen dira. Erabaki honen ondorioak

400 langilek pairatuko omen dituzte papergintzako multinazionalaren esanetan.

Leitza eta Berrobi

Sarriopapel y Celulosa, SA - Uranaga Berrobin aurkitzen da, Sarriopapel y Celulosa, S - Leiza, aldiz, Leitzan. Lantegi hauetan gaur batzarrak egingo ditu zuzendaritzak langileen ordezkariekin. Leitzako fabrikako zuzendaritza iturrietatik azaldu zuten, Torraspapelek aipatu bezala, «erabakiak euren gan ez du inongo eraginik izango».

Torraspapel eta Sarriopapel

Duela urte batzuk Torraspapel SA taldeak Sarriopapel erosi zuen, nahiz eta gaur egun Sarriopapelek bere izaera juridikoa mantentzen

jarraitzen duen. Torraspapel multinazionala besteak beste Europar eta Hego Ameriketara aurkitzen da. Torraspapel CVC arrisku kapital taldeak kontrolatzen du eta 3.135 langile ditu gaur egun. Urtean 890 milioi euroko fakturazioa omen dauka.

Bi lantegi itxeko erabakia «beharrezkoa» omen da taldeko arduradunentzat; «Torraspapelek merkatuan bere lekua ziurtatzeko eta lanpostuak mantentzen jarraitzeko». Lantegien ixtea, papergintzak bizi duen mundu mailako krisi estrukturalarengatik eta egoera ekonomikoarengatik omen dira. Honen ondorioz, iztukadura papera ekoiizteari utziko omen diote.

Hurrengo egunetan erabaki honen aurrean enpresa bereko langileen erreakzioa ikusi beharko da.

Ikasle Abertzaleak taldeak Ikasle Eguna ospatuko du gaur

Leitza » Goizean Amazabal institutuan IAREN aurkezpena egingo dute eta arratsaldean Gaztetxera joango dira.

A. IMAZ

Ikasle Abertzaleak taldeak Leitzako Ikasle Eguna ospatuko du gaur. Lehenik eta behin, Amazabal institutuko liburutegian, IAREN aurkezpen ekitaldia egingo dute. Arratsaldean berriz Gaztetxera joango dira, bertan jaiarekin eta aldarrikapen ekitaldiekin aurrera jarraitzeko asmoz. 18:30etik 20:00etara etena egingo dute, zinemaren *La buena nueva* filma estreinatzen delako.

Goizean taldearen aurkezpena

Leitzako Ikasle Eguna 11:15ean jarriko dute abian. Amazabal institutuko liburutegian Ikasle Abertza-

leak taldeko kideek euren ekimenak eta ideiak aurkeztuko dituzte ikasleen aurrean.

Institututik Gaztetxera

Ikasle Abertzaleak-ek Leitzako Ikasle Egunean ospatuko duen lehen ekitaldia Amazabalen egingo baldin badute ere, arratsaldean Atekabeltzera eramango dute jai eta aldarria.

Jokoak egingo dituzte 17:00etatik aurrera Gaztetxean. Antolatuak azaldu dutenez, Musazkarean, Pin Pon eta Futbolinean arituko dira.

*La buena nueva*ren tartean atseñen hartuko dute, 20:30ean ekitaldiekin aurrera jarraitzeko. Atekabeltz Gaztetxean bideo emanaldia eta luntxa egingo dute ordu horretan. Ondoren berriz, jai giroan egongo dira goizaldera arte. Azken ospakizun honetan trago bakoitzarekin txupittoa doan eskainiko dutela aipatu dute IATik.

Kultur Hamabostaldia astelehenean eta asteartean dator

Amezketak » San Martin egunean, azaroaren 11n, goizean eta arratsaldean ospakizunak, jolasak eta dantzaldiak.

A. IMAZ

Kultur Hamabostaldiaren baitan, Amezketan, ekitaldi ugari antolatu dituzte azaroaren 10ean eta 11n. Aipatu azken data honetan San Martin eguna ospatuko dutela hainbat txokotan.

Azaroak 10, astelehena

Emozioak modu egokian nola biderratu jakiteko, gela polibalentean hitzaldia antolatu dute astelehe-

nean, 18:00etan. Ondoren, Buruntzunin elkarteak Juantxo Agirre Maulon-en hitzaldia antolatu du, gela berean 20:30ean. Kasu honetan, gaia ondorengo izango da: *Aralarko Gazteluak, arkeologiaren ikuspuntutik*.

San Martin eguna

Azaroaren 11n, asteartean, santuaren izeneko elizan, 11:00etan meza egingo dute. Ondoren bertsolariak eta Lajarekin dantza egiteko aukera egongo da.


Errekaldean 14:00etan bazkaria egingo dute. Ondoren Lajaren musika itzuliko da. Haurren bazkaria 13:30ean izango da. 15:00etan haur jolasak egingo dira eta azkenik merienda egingo dute.



Odriozola aske uztea exijitu dute

TOLOSA » Lizardi Kultur elkarteko kideek elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean, «Pello Odriozola tolosarra aske uztea eskatzeko». Jakinarazi dutenez, hilabete bakoitzeko estreinako ostegunetan bilduko dira,

Pello gurekin nahi eta behar du. Pello Lizardira orain! lelopean. Odriozolak zigorra pasa den uztailaren 2an bete zuen eta, beraz, «duela hiru hilabete pasatxo aske behar zuen», salatu dute elkarteko kideek. E. EZIZIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

- **Amezkea.** Kultur Hamabostaldiaren baitan Gazteen Eguna: 20:30ean zahagi sagardoa, eta 00:00etan Gargantas desgarradas eta Inde kitxen taldeen kontzertuak. Frontoian izango da.
- **Berastegi.** Kulturaldia: 16:30ean Kulkiren herri kirolak eta baserriko jolasak, ondoren Urepele Elkartearen txokolate beroa, eta 21:30ean Ate joka antzerki emanaldia, Joseba Usabiaga, Iker Galartza eta Sara Cozar aktoreekin.
- **Gaztelu.** Sendabelarrei buruzko hitzaldia eskola zaharrea 20:30ean, Maradi baserriko emakumeen eskutik, Kultur Astearen barruan.
- **Ikaztegieta.** Txalo konpainiak *Magia teiltatuetan* antzezlan eskainiko du kiroldegian 17:00etan eta 21:00etan *Drogak larrugorritan* hitzaldia gazteentzat.

Antzerkia

- **Tolosa.** Bat eta bi antzerki taldearen *Un encuentro especial* eta Suyanema antzerki taldearen *Orden cotidiano*. antzezlanak 22:30etik aurrera Bonberenean.

Hitzaldiak

- **Tolosa.** *Meditazioaren boterea: hernen eta orain bizi hitzaldia* Kultur Etxean 20:00etan.

Zinema

- **Tolosa.** *Vicky Cristina Barcelona* filma Leidor aretoa gaur 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Bigarren eskukoak egoera ezin hobean

TOLOSA • Ohitura bilakatu da urtero Oargi mendi elkarteak antolatutako Mendi Hamabostaldia. Honen baitan arrakasta handia izaten du Mendi materialaren Azoka. Bertan, mendirako baliagarri diren hamaika produk-

tu topa daitezke, esaterako, arropa, zapatak, eskiatzeko gailuak, eskalatzeko gailuak,... Guztia prezio egoki batean eta egoera onean. Oargi elkartearen bertan atondu dute eta oraindik bisitatu ez dutenentzat igandera bitarte izango da zabalik Material Azoka. Bihar, 18:00etatik 21:00etara eta larunbatean 10:00etatik 21:00etara. Azoka igandean itxiko dute; 10:00etatik 14:00etara. €€

A Agurrak



Urte askoan!

Manex Tejeria Larrarte (Zizurkil). Gaur 3 urte. Muxu handi bat guraso eta anai-arreben partetik.



Urte askoan!

Uxue Aizpurua De Paz (Asteasu). Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

NEREX
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisoiak
Kamisetak
Batoiak
Pikardiak
Tangak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

Zinema Etxean 3

6 DVD euskaraz

Babesleak: naturgas energia, CAJA LABORAL, TOLOSALDEKO HITZA

berria
LUTATU BOSTEKOKO

TXALOK
MURRI ZINEMAK

Grönholm METODOA

Tolosan sarrerak
RAKUN salgai

K **hitza**